

Altzako VIII. BERTSOPAPER LEHIAKETA

OINARRIAK

1. Partehartzaileak.

Bertsopaper lehiaketa 18 urte edo gehiagoko helduei zuzendua izango da.

2. Sariak.

- Lehiaketako irabazleak tableta digital bat eta Altzako baserrietako produktuez osatutako otarra jasoko du.
- Altzako onenarentzat: Antton Mendizabalek egindako “*Lau Haizetara*” oroigarria eta Altzako baserrietako produktuez osaturiko otarra jasoko du.

3. Eginbearra.

- a) Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira.
- b) Bertso sorta bakoitzak gutxienez 3 eta gehienez 8 bertso behar ditu.
- c) Lanek orijinalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izan behar dute.
- d) Ezinbestekoa da bertso-sortaren doinuaren izena argi adieraztea.
- e) Bertsopaperak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira.
- f) Lanak bakarkakoak izango dira.

4. Lanak aurkezteko modua.

- a) Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira.
- b) Bi modu ezberdinetan aurkeztu daitezke:
 - a. Fisikoki:
 - i. Gutun-azal handi batean sartuko dira bertso-sorta orijinalak eta 2 kopia, beste gutun-azal txikiago batean joango diren egilearen datuekin batera (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa).
 - ii. Bi gutun-azaletan garbi adierazi beharko da egilearen izengoitia.
 - iii. Lanak Bizarrain Euskara Elkartearen egoitzan aurkeztuko dira: ***Bizarrain Euskara Elkartea***, Casares Kultur Etxea, Darieta Bidea 1, 20017 Altza.
 - b. Posta elektronikoko bidez: bizarrain@altza.net helbide elektronikora bidaliz.

5. Lanak aurkezteko epea.

Lanak aurkezteko epea, 2018ko martxoaren 12tik, apirilaren 15era arte izango da.

6. Epaimahaia eta epaia

- a) Epaimahaiaren osaketa Altzako Bizarrain Euskara Elkartek erabakiko du. Bertsolaritzan eta euskal kulturaren nor diren bi alztatarrek eta Bizarrain Euskara Elkarteko ordezkari batek osatuko dute epaimahaia.
- b) Epaia 2018ko apirilaren 21an emango da ezagutzera, Altzako XVII. Bertso Asteko bertso bazkarian.
- c) Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da. Dena den, aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira.

7. Besterik.

- a) Saritutako lanen jabetza Altzako Bizarrain Euskara Elkarteara izango da. Sari-ematea burutu ostean lan hauek argitaratzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.
- b) Saritu gabeko lanak jasotzeko, 2 hilabeteko epea izango dute egileek; bestela antolatzaileen esku geratuko dira.
- c) Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri eta baldintza horiek guztiak onartzea adierazten du.

8. Antolatzailea.



9. Laguntzaileak.

Altzania kultura-elkartea eta Altzako bertsozaleak.

Altzan 2018ko otsailaren 14ean.